

Alkohola ahaztu nahian

Ermuan "Alkolicos Anonimos" eratu zenetik, 1986ko urtarrilean, orain arte, hainbat eta hainbat pertsona joan dira laguntza bila. Bertan anonimotasuna ziurtatuta dago, hau bait da ezinbesteko gauza A.A.k aurrera jarrai dezan. Ez dute fitxarik, bakarrik izenak ematen dira zeren abizenek pertsona bat identifikatzeko balio dute.

Baina azken finean zer da erakunde hau eta nola funtzionatzen du? A.A. emakume eta gizonen artean eratutako komunitate bat da. Bakoitzak bere esperientziak kontatzen ditu eta denen artean, duten arazo berdinari irtenbide egoki bat bilatzen saiatzen dira.

Ez dute inolako subentziorik jasotzen, ez dutelako nahi, ez Diputaziotik, ez Udaletatik, ez inondik. "Dirua dagoen lekuan, kaosa orokorra da". Euren diruarekin konpontzen dira, bai bidaiak egiteko bai beren "literatura" (folletoak) ateratzeko.

A.A.era sartzeko ez da inongo paperik edo fitxarik bete behar; betan sartu ezkeror irtetzeko bidea ere badago.

alkoholiko bat beste batek baino?

Ermuko ihardunaldiak Udaletxeak antolatu ditu eta



Alkoholismoari buruzko jardunaldietako mahai-inguru bat

RAUL BOGAJO

Erakunde honetan ematen den programa sugeritua da, eta A.A.ek ez du inor behartzen ezertara. Zailtasunak kanpoan daude, "inor ez badaukazu kanpoan laguntzeko prest, oso zaila da, baina taldean oso ondo konpontzen gara, zeren, nork ezagutzen du hobeto

A.A.eko partaideek beren laguntza eman dute, "guk ez dugu ezer antolatzen taldeetik kanpo, baina batzuk edo besteak laguntza eskatzen badigute gu beti prest egongo gara". Bertan, hitz egin da erakunde honi buruz. Hau euren partaidetako batek

azaldu du; beste partaideek beren arloko arazoak azaldu dituzte.

A.A.ekoek bi bilera desberdin egiten dituzte, bata astearte eta ostiraleko egiten

"Nork ezagutzen du hobeto alkoholiko bat, beste batek baino?"

da 20.00etatik 22.00etara. Bilera honetara bakarrik beraiek joan daitezke, itxiak direlako. Bilera irekietara edonor joan daiteke eta hilaren bigarren asteazkenean egiten dira. Pertsona bakoitzak onartu behar du alkoholikoa den ala ez. Erabakia hartuta dagoenean A.A.ekoek beren laguntza eskeintzen dute, "guk ez diogu laguntzen behar duenari, nahi duenari baizik".

Eli Txurruka



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen**

bihotzean

MUGA



SEXTO CENTENARIO, n.º 7
Teléfono: 17 64 77
ERMUA

KIKIROAK

Kopi - Fax

Kopistegia, Papertegia

Torrekua, z/g. 48260 ERMUA
Tfnoa. eta Faxe: (943) 17 42 89

**HARATEGIA
URDAITEGIA**

DANOTZ

- * TXERRI OKELA
- * OILASKOAK
- * SAGARDOA TA TXAKOLINA

Valdespina, 9